

Tuneleko argiaren ajeak

Gogoeta dut hau, laburra baina ez arina. Marko Demokratikoaren proposamena tarteko helmuga egokia hartzen duen ezkerreko subiranista batek etxe barrurako egina, ezkerrek gaur eta hemen izan behar duenaren gainekoa bazter utzita oraingoan.

Tuneletik tunelera goaz subiranistok, hori bai, garaipenera-edo garamatzan bidetik. Horrela ikusten dut nik behintzat, tunelak eskaintzen duen argiaz, askotan garaipenaren atarian garela entzun arren. Zikloz ziklo gauzak ikusteko eta ulertzeko talaiaak diferenteak izatearen ondorio, seguruenik. Jakin badakit gurea bezalako prozesu subiranista berez dela konplexua, baina horrexegatik nik bide-orria, bere funtsean argia, behar dut buruan izan, unean une bide-orriaren zein lekutan nagoen argigarri. Jakina, ezkerreko subiranisten bide orriaz ari naiz, ez beste batzuenaz; eta, jakina ere, helburuaz eta helbideez ari naiz, are gehiago, azken huez batez ere.

Gaur gaurkoz bide-orri horren faltan nago ni. Independentista independentea, kasik. Nire ustez prozesu subiranista batek bi zutabe behar ditu ezinbesteko: burujabetza ukatzen duten oztopo estrukturalak gainditzekoa, proiektu politiko guztiek gauzatzeko modua izan dezaten, bata; eta bestea, prozesu horren aldeko gehiengo sozial zabala, gauzatzearen berme modura. Eta biak uztarri berean. Are gehiago, aipatu bigarrena prozesurako funtsezkoa izanda ere, are funtsezkoagoa zaigu lehenengoa bera lortzeko. Baina agiriak gogoan, erakunde armatuak bestelakorik uste duela begitantzen zait, gehiengo sozialarena gero-ko beste fase baterako utzita oztopo estrukturalak gainditzea berari dagokiolakoan, bere modura egoki ere.

Estrategiaz estrategia ping-pong partiduko ikusle ikusten dut nire burua, errepresioa-ekintza-errepresioa gurpil antze-



IÑAKI AZKONA

ko kate zaharberrituan. Are gehiago, noren bide-orritako zein lekutan nagoen jakitera iritsi gabe. Nazio eraikuntzan garela dudarik ez dut, ekimenak ekimen, baina nire iritzian gure eraikuntza mantsoago doa kontrakoen ezarpena baino, azken finean horiek ez dute bide-orrien beharrik, iraganaren inertzia nahikoa dute eta; baina subiranistok ezin inertziak bultzatuta aritu, iraganari uko egin gabe geroaren orainak bestelako helbideak behar dituelako. Horizontala bertikalak baino, kontudentzia zibila militarra baino, borroketan eraginkortasuna auto-satisfazioa baino, eraikuntza erresistentzia baino... Balizko bide-orriaz ari naiz.

Traba nagusi bi ikusten ditut ezkerreko subiranisten mugimendu eraginkorra ganoraz gorpuzteko; eta ez doaz orde-

nan. Batetik, batzuek biolentzia politikoa ulertu eta honen eragin politikoa baloratzeko orduan erakunde armatuaren jarrerarekiko duten larregizko atxikimendua. Bestetik, beste batzuek gainditzea eskatzen duten marko juridiko-politikoak eskaintzen dituen aukera instituzional eskasekiko duten gehiegizko atxikimendua. Traba diren oztopo biak gainditu gabe eta helbideen gaineko gogoeta berriurik gabe zaila ikusten dut nik burujabetzaren aldeko ezkerreko mugimen-

du sozio-politiko zabal eta eraginkorrari muina eta gorputza ematea. Eta betaurrekoak ipinita ez dut hori konponduko, badakit.

Zeharreko lan-eremuak zabaldu behar dira gaurko markoa zinez gainditu nahi dugun ezkerrekoen artean, helburuaz eta, batez ere, konfrontazio politikorako helbideez adostasun sendo baten inguruan, beto guztiak baztertuta, iraganetik datozen batzuenak eta besteenak barne. Guretzako bide-orri eraginkorra behar dugu, orain artean ezina izan dena ahalbide bihurtzeko. Konfrontazioa ulertzeko bestelako bideak. ■

« Nazio eraikuntzan garela dudarik ez dut,
ekimenak ekimen, baina nire iritzian
gure eraikuntza mantsoago doa kontrakoen
ezarpena baino, azken finean horiek ez
dute bide-orrien beharrik, iraganaren
inertzia nahikoa dute eta »